

Hezkuntza-esperientzia pilotu bat
garatzeko lan-materiala

Herenegun!

Unitate didaktikoa

Memoria Hurbilari dagokion aldia
(1960-2018) DBHko 4. mailako eta
Batxilergoko 2. mailako Historia
irakasgaien sartzeko proposamena

Irakasleentzako oinarri-testua

1. koaderno

Sarrera-esparrua, ikuspuntu
historiografikotik

**ETA euskal testuinguru soziopolitikoan:
1960-2018ko sintesi historikoa**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Atariko gaia: dokumentu hau egiteko metodoa

Koaderno hau irakasleentzako oinarri-testu bat da. Helburua da, ikuspuntu historiografikotik abiatuta, 1960-2018 aldirako sarrera-esparrua eskaintzea, memoriaren politika publikoek Memoria Hurbila deitzen duten aldi horretan gertatutakoaren laburpena egitea.

Honako gai eztabaidagarrietan materialaren edukia aurkeztea bezain garrantzitsua da hura egiteko modua aurkeztea. Edukiaren alde garrantzitsua da forma. Esan bezala, testua lantzeko Juan Pablo Fusi, Mari Carmen Garmendia eta Mariano Ferreren laguntza eta aholkuak izan ditugu.

Juan Pablo Fusi historialari ospetsua da, Espainiaren gaur egungo historian eta, batez ere, Euskadiren historian eta nazionalismoetan zentratu dena. Mari Carmen Garmendiak erantzukizuneko karguak izan ditu azken hamarkadetan euskal erakunde sozial eta politikoetan, kulturaren arloari lotutakoak nagusiki. Mariano Ferrer kazetari ezaguna da, azken 50 urteetan egunez egun gertatutakoaren lekuko eta kronikari independentea izan dena.

Hiru horien adina, eskarmentu profesionala eta ibilbidea kontuan hartuta, itzal handiko ahotsak iruditzen zaizkigu gure herriaren historia hurbilaz hitz egiteko. Eta, aldi berean, askotariko sentsibilitate eta begiradak biltzen dituzten hiru ahots dira. Hona hemen, testu hau idaztera iritsi arte jarraitutako prozesua.

2014ko azaroan, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak hiru lagun horien lankidetzara eskatu zuen "Oinatz galduak" dokumental sortaren sortze-prozesuan argitaratze-aholkularitza emateko. Hirurek onartu zuten proposamena eta geroztik, gogoz jardun ginen serieko gidoiak aztertzen lehendabizi eta ikus-entzunezko formatura bihurtzen gero. 2014ko azarotik 2016ko martxora bitartean, batez beste 4 orduko 11 bilera egin ziren.

Unitate didaktiko hau egitea erabakita, 2017ko abenduan Idazkaritzak laguntza eskatu zien, berriz ere. Lehendabiziko zeregina ordu beteko bost dokumentalak 22-23 minutuko formatuetan laburtzea izan zen. Jarraitutako lan-prozesua antzerakoa izan zen. Lehen fasean, dokumentalak egin zituen produktorearekin aztertu zen zer laburtu. Bigarren fasean, geratzen zen ikus-entzunezko materiala balioetsi eta proposamenak eta iradokizunak aztertu eta kontuan hartu ziren.

Aldi berean, 1960tik hasita gure herriaren historiari buruzko 10 orrialdeko laburpen bat egiteko laguntza eskatu genien. Testu horrek sarrera-esparru bat eskaini behar zien, ikuspuntu historikotik, irakasleei. Lanaren koordinazioa Giza Eskubide, Bizikidetzara eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hartu zuen bere gain. Juan Pablo Fusik egin zuen lehen zirriborroa. Lehen zirriborro hori oinarri hartuta, egun erdiko beste 5 bilera egin ziren. Proposamenak idatziz trukatu zituzten eranskinekin batera orain aurkezten dizuegun testua zehaztua eduki arte.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzara eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak du testuaren gaineko erantzukizuna. Baldin eta hiru lagun horiek dokumentua bakarka idatzi behar izan balute, emaitzak ñabardura desberdinak izango lituzke, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, testu honek badu balio erantsi bat: ikuskera desberdinak integratzeko gai izan den gogoeta modura onartua izan baita, Eusko Jaurlaritzak eskertzen duen ahalegina.

Edukiari dagokionez, koaderno honetan irakasleentzako oinarritzko testu bat dago: "ETA euskal testuinguru soziopolitikoan: 1960-2018ko sintesi historikoa". Testuaren ardatza den zati hori kronologia batez eta zazpi eranskinez dago osatuta. Horietan daude bilduta azken urteetako alderdi espezifikoek buruzko informazio osagarriak, sustatu nahi den hezkuntza-zeregina dokumentatzeko erabilgarri izan daitezkeenak.

1. Irakasleentzako oinarri-testua

ETA euskal testuinguru soziopolitikoan: 1960-2018ko sintesi historikoa

Francoren diktadurak (1939-1975) –errepresio politikoa eta kulturala, zentralizazio politikoa eta Euskal Herria espainolizatzea ekarri zuen etapa luzea– bidea ireki zion, nola edo hala, Bizkaiko eta Gipuzkoako hazkunde ekonomiko, industrial eta demografikoari, 1960tik aurrera Araba eta Nafarroara ere zabaldu zena. Desarrollismo berri eta biziak zeharkako ondorio negatiboak bazituen arren –eskualdeen arteko desoreka handiak, gehiegizko labore sidero-metalurgikoa, etxebizitza– eta industria-pilaketa handia, ingurumenaren hondamena ekarri zuena Bizkaia eta Gipuzkoako eremuetan-, Euskadiko eta Nafarroako BPG 100ko 210,1 hasi zen 1955 eta 1975a bitartean. 1940 eta 1975 bitartean, 468.295 lagunek emigratu zuten Euskadira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 955.764 biztanle ziren 1940an eta 1975ean 2.072.430 izatera iritsi ziren. Bilbok 202.531 biztanle zituen 1940an eta 431.071 1975ean; Gasteizen 42.116 izatetik 170.870 izatera iritsi ziren; Donostian 105.775 izatetik 165.829 izatera iritsi ziren. Transformazio ugari bizi izan zituen euskal gizarteak. 1960a geroztik, Euskadi gizarte industrial eta urbanoa zen, bizi-maila handikoa, landa guneak husten ari ziren, sekularizazioa hasten, biztanleen zati handi bat lantegietako soldatapekoa zen, eta enpresek, zerbitzu profesionalek eta koadro teknikoek gero eta pisu gehiago zuten.

ETAren agerpena

Euskal gaia dagoeneko gauza hutsala zela pentsarazi zuen eredu frankista –desarrollismo ekonomikoa, oparotasun materiala, migrazio-prozesu berriak, gizarte hiritarra, hizkuntza– eta kultura-asimilazioa, errepresio politikoa, sindikala eta kulturala– hautsi egin zen 60ko hamarkadan: aurrerantzean Bizkaian eta Gipuzkoan eman ziren lan-gatazka ugariengatik eta, batez ere, 1959an ETA sortu zelako klandestinitatean. Euskal erakunde independentista horrek indarkeria insurrekzionalari ekin zion 1968an, gero terrorismo eta beste era bateko indarkeria-mota bihurtuko zelarik. Azkenean, “borroka armatu” hori Euskal Herriaren “askapena” eta independentzia lortzeko estrategiaren oinarritzeko tresna bihurtu zen. ETA berehala definitu zen euskal nazio askapenerako mugimendu gisa eta definizio horri eutsi zioten –kutsu eta enfasi ezberdintasun batzuk gora behera– erakundeak izan zituen zenbait zatiketen ondorioz agertzen eta desagertzen joan ziren ETAren adar ezberdinek. Zatiketa garrantzitsua 1974an gertatu zen, ETA militarra eta ETA politiko-militarraren artean.

Hori izan zen funtsezko gertakaria. ETA testuinguru honetan sortu zen:

- a) Francoren erregimenak sortutako egoerari erantzuteko (askatasun demokratiko eza, euskal nazionalismoaren, euskararen eta euskal kulturaren aurkako errepresioa; eta erdalduntze eta erabateko kultura-asimilaziorako politika).
- b) 1950-1975eko industrializazio-prozesuak zekarren deseuskalduntze-mehatxuari erantzuteko.

ETA agertzeak aldaketa handiak ekarri zituen historikoki euskal nazionalismoak izandako esanguran. Definizioak –euskal nazio askapenerako mugimendua– berebiziko garrantzia zuen. Euskal nazionalismo historikoa, Euzko Alderdi Jeltzalea, alderdi sozial-kristaua eta demokratikoa, prest agertu zen, 1936-1937an bereziki, Espainiako estatu barruan Euskadi autonomo bat onartzeko. ETA, ordea –klandestinitatean eta erbestean zegoen EAJri pasibotasuna egozten zion nazionalismoaren inguruko gazte jendearen belaunaldi-matxinada izan zen neurri handi batean 60ko hamarkadako ETA–, erakunde erradikala zen, ideologia marxista zuen, Euskal Herria Espainiatik eta Frantziatik erabat bereiztea nahi zuen eta indarkeria baliatzen zuen independentziarako bidean.

Lehenengo atentatu mortala eta gero –1968ko ekainaren 7an, Txabi Etxebarrieta, hasierako ETAren lider eta ideologo nagusiak, Jose Pardines guardia zibila hil zuen Villabonan; ordu batzuk geroago Guardia Zibilak Etxebarrieta hil zuen Tolosan–, ETAk berrogeita hiru pertsona hil zituen

1968 eta 1975 bitartean. Horien artean, 1973an, diktaturako gobernu-presidentea zen Luis Carrero Blanco. ETAREN ekintzek eta poliziaren errepresioak (errepresio oso bortitza eta indiskriminatua) sortutako espiralak euskal kontzientziak astindu zituen eta bi momentutan bereziki argi geratu zen: azkenean exekutatu ez zituzten arren, heriotza-zigorra kondenatutako ETAKO zenbait kideren aurkako Burgosko prozesuaren aurka gertatu zen hiritarren mobilizazio zabalean batetik, eta, bestetik, urte batzuk geroago, Juan Paredes Manot eta Angel Otaegi ETAKO kideak fusilatu zituztela eta gertatutako protestaldietan (Espainiako ezker muturreko FRAP taldeko hiru kideekin batera fusilatu zituzten).

ETAREN indarkeriak aldatu egin zuen euskal gaiaren izaera bera. Franco hil ondoren eta demokrazia berriz ezarrita, EAJK, diktaturaren ostean biziberrituta, euskal identitatearen kontzientzia berpiztea kapitalizatu bazuen ere, ETA eta terrorismoa nazionalismo alternatibo baten erreferente nagusi bihurtuta zeuden, eta ondorioz, euskal gai edo gatazkaren erreferente ere, eta hala jarraitu zuten izaten ia Trantsizio osoan eta 2000ko hamarraldian ondo sartu artean ere. Carrero Blancoren aurkako atentatua ez zen gertakari ikusgarri eta harrigarri bat izan bakarrik, Carrero nor zen eta atentatua nola egin zen kontuan hartuta. ETAKO belaunaldi berri bateko kideek (*Txikia, Argala, Mujika Arregi Ezkerra, Txomin Iturbe, Josu Ternera, Antton Etxebeste...*) Burgosko epaiketaren ondoren (1970) diseinatutako estrategiaren emaitza izan zen: Espainiar estatuaren aurkako bide militarren estrategia, ETAREN erabateko militarizazioa (ETA militarra: borroka armatua erabat lehenetsi; ETA politiko-militarra: masen borroka, ekintza militarra osagarri), hau da, indarkeria “askapen” eta independentzia prozesuaren beharrezko faktore bezala. Espero zitekeen diktaturaren ostean, demokraziarekin, Euskadi autonomia-erkidego bihurtuko zela eta horrek berehala ekarriko zuela bakea eta normalizazioa. Ez zen, baina, horrela gertatu. ETA eta hark sortutako gatazka izan ziren Espainiako demokrazia berriarentzat aurre egin beharreko arazo nagusia.

Borroka armatua

Demokraziarako trantsizioan, 1975etik aurrera, bi prozesu gainjarri ziren Euskadin:

- autogobernu-maila altua itzultzeko prozesu politikoa.
- ETAREN indarkeria terroristaren gorakada eta ezkerreko independentismoaren gorakada politikoa, 1978ko apirila geroztik Herri Batasunak, ETAREN (ETA militarren) beso politikotzat jotzen zen alderdien koalizioak ordezkaturik; euskal nazio askapenerako mugimendua sendotzeko prozesua, beraz.

Prozesu autonomikoa 1979an gauzatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoarentzako Estatutu berria onartuta; 2011. urtera arte ETAK (haren adar ezberdinek eta kideko taldeek) 853 lagun¹ hil zituzten, 3.000 ekintza terrorista inguru burutu zituen, 82 lagun bahitu eta 10.000 inguru estortsionatu (zerga iraultzailea). Denbora horretan, ETAKO eta gertuko taldeetako 150 kide hil ziren segurtasun-indarrekiko enfrontamenduetan, manipulatu zituzten lehegailuak eztanda eginda, buruaz beste eginda edo argitu ez diren egoeretan, eta 3.300 pertsona inguru espetxeratuak izan ziren.

1979ko Autonomia Estatutuarekin iritsi zen Euskadira –gizarte plurala, nazionalista eta ez nazionalista aldi berean, oreka politiko ezberdinekin probintzietan eta udalerrietan, eta EAJK gobernatua 2009 arte (Carlos Garaikoetxearen gobernu 1980-85ean, Jose Antonio Ardanza 1985-99an, Juan Jose Ibarretxe 1999-2009an)– bere historiako autogobernu-maila altuena: gobernu unitarioa, legebiltzar propioa, ekonomia-ituna, batzar nagusiak probintzia bakoitzean (foru-lurraldeak, orain), eskumen zabalak zergetan, hezkuntzan, unibertsitatean, ordena publikoan (Ertzaintza, euskal polizia-kidegoa, 1981ean sortua), osasungintzan, garraioetan, komunikazioetan, telebista eta irrati propioekin.

¹ Iturria: Barne Ministerioa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Elkarte eta Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia.

Prozesu autonomikoa gainditzea bilatu zuen ETAK: nazio askapenerako erakunde independentista gisa ETAK ezin zuen onartu autonomia (Euskadi eta Nafarroa bi komunitate gisa bereizita) izatea euskal gizartearen zati handi baten asmo nazionalistentzako irtenbidea. Bere estrategiak gutxietsi ezin den gizarte-babesa izan zuen hauteskundeetan, Gipuzkoan batez ere, eta Nafarroako toki batzuetan (lehen atentatua: J. Imaz Poliziaren komandantea hil zuten 1977ko azaroaren 26an), non ezker aber-tzaleak kanpoan utzi zituen EAJ eta EA lehen indar nazionalista gisa. Estrategia horrek –funtsean ter-rorismoa, indarkeria, beldurraren presioa euskal gizartearengan; noizbehinka herritarren artean gori zegoen gairen bat defendatu, Lemoizko zentral nuklearraren aurkako borroka esaterako– distortsio-natu egin zuen demokraziagintza.

– Izan ere, Espainiar estatuaren eta Poliziaren aurka garaipen militarra lortzeko gaitasunik sekula izan ez bazuen ere, “degaste-terrorismoa” izan baitzen hura, ETAK (hau da, ETAm eta ETApn –borroka armatua 1981ean bertan behera utzi zuen eta sekula argitu ez den krimen baten ondorioz 1976ean Hendaian desagertu zen Eduardo Moreno Bergaretxe izan zuen lider nagusi–) ia etengabeko erro-nkari eutsi zion Espainiako segurtasun-indarrekin eta Ertzaintzarekin bere garaian.

– ETAK ekintzetarako sekulako gaitasuna erakutsi zuen. ETAREN adar ezberdinek eta kideko tal-deek 303 lagun hil zituzten 1976 eta 1981 bitartean, eta 471 lagun 1982 eta 2000 bitartean. 1980. urtea izan zen okerre-na: 96 hildako². Bartzelonako Hipercor supermerkatuaren aurkako atentatua, 1987ko ekainaren 19an, izan zen odoltsuena: 21 hildako, 46 zauritu.

Laburbilduz, ETAREN estrategia terroristak ezinezkoa bihurtu zuen bakea. 1975etik aurrera, ETAREN terrorismoa ez da Espainiako zirkunstantzia politikoei emandako erantzuna, ez eta ebatzi gabeko ga-tazka baten azken ondorioa ere. Honako hauen emaitza izan zen:

– ETAK independentzia lortzeko eta boterea irabazteko jarraitutako ikuspegi estrategikoarena (ETA militarrean sendoagoa eta gehiago iraun zuena).

– Bere planteamendu independentistentzat mehatxua zen prozesu konstituzional eta autonomi-koa kaltetzeko ETAK hartua zuen erabakiarena.

– Espainiako gobernuarekin zuzenean negoziatzera (garaipen politiko eta militar horrek ETA Eus-kadiko “botere faktiko” bihurtuko lukeena) eta ETAK berak ezarritako baldintzetan negoziatzera behartzeko zuen borondatearena. Baldintza horiek, lehendabizi, 1978ko otsailean zehaztu ziren “KAS Alternatiban” (amnistia, alderdi politiko guztien legalizazioa, ordena publikoko indarrak erre-tiratzea Euskaditik, langileen bizi-baldintzak hobetzea, Nafarroa integratzea), eta gero, 1995eko apirilean, “Alternatiba Demokratikoan”: autodeterminazioa eta lurraldetasuna, hau da Euskal He-rriarren lurralde-batasuna (Euskadi, Nafarroa eta Iparraldea).

ETAK ez zuen onartzen bere planteamenduetatik inolaz ere aldentzea. 1986ko irailean Yoyes (Dolo-res Gonzalez Katarain) hil zuen ETAK. Erakundeko buruetako bat izandakoa, jada kargurik gabe, bere jaioterrira itzuli zen, Ordiziara. Ohartarazpen bat izan zen borroka armatuari uko egin eta gizarteratze-ko asmoa zuten militanteentzat.

1976 eta 2001 bitartean, ETAREN adar ezberdinetako 114 kide inguru hil ziren Poliziarekin izandako en-frentamenduetan (edo ETAKo kideek eurek izandako istripuetan). Polizia-lanaren ezintasunaren au-rrean, terrorismoaren aurkako borrokaren arduradunek “gerra zikina”ren metodoak erabili zituzten: talde paramilitarrak antolatu zituzten, tortura erabili eta giza eskubideen beste urraketa batzuk egin zituzten. Triple A, GAE, Batallón Vasco Español eta antzeko taldeek 46 lagun hil zituzten, eta horien artean, 1977ko abenduan, *Argala*, ETAKo buruzagietako bat eta Carrero Blancoren aurkako atentatua-ren erantzulea. GALek (Grupos Antiterroristas de Liberación), bestalde, 29 pertsona hil zituen: ETAKo 16 errefuxiatu eta 13 zibil (HBko Santiago Brouard eta Josu Muguruza, besteak beste). Gertakari ho-rietan parte hartzeagatik kondenatu zituzten Amedo eta Dominguez poliziak, Guardia Zibilaren jeneral Enrique R. Galindo, Rafael Vera, Segurtasuneko Estatuko idazkari ohia, Bizkaiko gobernadore zibila Julian Sancristobal, eta haien laguntzaileak.

2 Iturria: Terrorismoaren Biktimen Elkartea.

“Gerra zikina” erantzuna emateko terrorismoa izan zen eta Estatuko estamentuekin lotutako sektoreak ados zeuden; jakinaren gainean egon ziren edota konplizeak ere izan ziren kasu batzuetan. Bere jatorria eta izaera kontuan hartuta, Espainiako estatuaren zilegitasuna bera kolokan jarri zuen. Horrez gain, 80ko hamarkadan, aurreko urteetako errepresioak, Triple A edo BVEren atentatuak, eta bereziki GALen hilketak (1987ra arte luzatu ziren) utzitako arrastoak nolabaiteko aurrez aurreko indarkeriaren pertzepzioa izatea eragin zuen. Horrez gain, belaunaldi-errelebo negargarria eragin zuen ulermenean, babesean edo militantzian ETAtik gertuen zeuden sektore soziopolitikoetan. GALEk lortu zuena izan zen ETAk laurogeiko hamarkadan berrekitea, hain justu, ETAm desegin berria zegoela eta ETAm-k, atzerapenarekin bazen ere, gainbehera egitea itxaron zitekeenean. Erantzuna emateko terrorismoak ez zuen ETA ahultzea lortu, indartzea baizik. GALen ondorioek eragina izan zuten urte luzez eta bizirik egon ziren eztabaida politikoa, mediatikoa eta juridikoa; izan ere prozesu judizialek, espetxeratzeak eta indultuak zeresan eta erreakzio ugari ekarri zituzten.

Indarkeriak gairitu egin zuen, hain zuzen ere, euskal trantsizioa. Eta 1975 eta 1985 bitartean euskal ekonomiak bizi izango zuen krisi larriarekin bat egitean –XX. mendeko krisi larriena, Bilboko itsasadarreko ontzigintza eta industria siderurgikoaren hondamena eta gainbehera ekarri zuena–, bazirudien indarkeriak kolapso moral eta ekonomikora zeramala Euskadi. Mende osoan lehenbizikoz, Euskadik biztanleak galdu zituen. 1975 eta 1992 bitartean, 110.000 inguru pertsona joan ziren Euskaditik. Biztanleko errenta %10 gutxitu zen 1975 eta 1985 bitartean. Langabeziari dagokionez, biztanleria aktiboaren %1,76koa zen 1975ean (14.000 pertsona inguru), eta 1985ean %23,62era iritsita zegoen (188.300 pertsona). Literaturak, zinemak eta entseguek laster agerian utzi zuten bezala, ETAREN terrorismoak dilema moral sakonak sorrarazi zituen euskal gizartean. Hona adibide batzuk: Eleberrietan, *Ehun metro (Cien metros)* R. Saizarbitoriarena, *Lectura insólita de El Capital* R. Guerra Garridorena, eta *Gizona bere bakardadean (El hombre solo)* B. Atxagarena; filmeetan *Toque de queda*, *Operación Ogro*, *La fuga de Segovia* eta *La muerte de Mikel*; liburuetan *Euskadi: dos comunidades* M. Escuderoarena, *Milenarismo vasco*, J. Aranzadirena, *Ideología y estrategia política de ETA* G. Jaúreguirena, *Los nietos de la ira* P. Unzuetaarena, *Euskadi invertibrada* J. Arregirena, *El bucle melancólico* F. Juaristirena, *Contra las patrias* F. Savaterrena, *Hª del nacionalismo vasco y de ETA* F. Letamendiarena, *La herida patriótica* M. Azurmendirena. Eztabaidagai zegoen Euskadik ba ote zuen etorkizunik, Euskal Herria izaten jarraitzen zuen. Eztabaidagai zegoen, azken finean, euskal nazionalismoaren garrantzia, Euskadi gizarte plural eta ireki bat bezala eratzeko aukera, baita ETAREN asmo totalitarioak ere.

Atentatuak eta indarkeriak euskal gizartea astintzen zuten. 80ko hamarkadaren amaieran hasi zen sortzen zenbait antolakunde bakezaleen eskutik (Denon Artean, Gesto por la Paz, Bakea Orain, Elkarri...), bakearen aldeko kultura, hasieran minoritarioa baina gero eta garrantzi handiagokoa izan zena. ETAREN terrorismoa kondenatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak eta bestelako ekintzak egiten ziren, *lazo urdin*arena, esaterako. Antolakunde bakezaleen eskutik, 1993an hasi zen erabiltzen Julio Iglesias Zamora industria gizonaren bahiketarik protestatzeko. Aldi berean, une horretan hasi ziren agerian jartzen biktimen elkarteak, biktimak ahaztuta zeudela kontzientzia hartzeko lagundu zutenak.

Terrorismoaren erronkari erantzun politikoa emate aldera, alderdi nazionalistek (Euzko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna, Euskadiko Ezkerra) eta ez nazionalistek (Partido Socialista de Euskadi, Alianza Popular) zenbait itun sinatu zuten 1988. urteko hasieran. Garrantzitsuena Ajuria Eneko Ituna izan zen eta ETAREN indarkeriaren aurrean konpromiso bikoitza zuen; bakearen eta demokraziaren defentsa batetik, eta Estatuaren garapena, bestetik.

1989ko urtarrilean, Espainiako Gobernuak, Felipe Gonzalez sozialista buru zuela, elkarriketak hasi zituen erakundearekin –berehala huts egin zutenak– ETAK armak uztera eramango zuen balizko negoziua martxan jartzeko. Espainiako gobernu demokratiko guztiak saiatu ziren ETAREkin negoziazioak irekitzen, baina denek huts egin zuten.

Sufrimenduaren sozializazioa

Hala eta guztiz ere, egia da terrorismoaren aurkako borrokak aurrera egin zuela, eta batez ere, 1982-1984tik aurrera Espainiako eta Frantziako polizien elkarlanaren ondorioz, komando oso garrantzitsuak atxilotzea lortu zen, baita beste arrakasta ikusgarri bat ere: garai hartako ETaren kupula atxilotzea Bidarten 1992ko martxoaren 29an: Francisco Múgica Garmendia, J.L. Álvarez Santacristina eta José Arregi Erostarbe. Arrakasta bai, baina ustezkoa baino ez. Bakea, nekez lor zitekeen, eta negoziazioa, ezinezkoa zen:

- Hasteko, 1993tik aurrera Mikel Albisu (Mikel *Antza*) eta Soledad Iparragirre *Anbotoren* inguruan egituratutako ETaren zuzendaritza berriak –ETaren erabateko militarizazioak “gerraren sufrimenduan” euskal gizarte osoa inplikatzeko ekarri behar zuela konbentzituratu zegoen zuzendaritza–, bi modutara erantzun zien Bidarteko atxilotetei: *batetik*, politiko eta pertsona ospetsuen aurkako atentatu selektiboekin (Gregorio Ordoñez, Euskadiko Alderdi Popularreko buruzagia, 1995ean; Fernando Múgica Herzog, Gipuzkoako sozialisten buruzagietako bat, 1996an; Francisco Tomás y Valiente, Konstituzio Auzitegiko presidente ohia, 1996an; PSE-PSOeko eta PPko zenbait zinegotzi, horien artean Miguel Angel Blanco Ermuko zinegotzia, uztailearen 1997an); eta, *bestetik*, “ETaren ingurua” deiturikoek bultzatutako eta gauzatutako mobilizazio eta kale-indarkeriarekin (hau da, kontramanifestazioak, autobusak erre, instalazio eta eraikin esanguratsuak suntsitu, erasoak). Beldurrarazteko modu bat zen, Europako lehen faxisten indarkeria “eskuadrista” gogorarazten zuena eta, zalantzarik gabe, euskal gizartean gero eta indartsuagoa zen bakearen aldeko eta terrorismoaren aurkako mobilizazioa indargabetu nahi zuena eta,aldi berean, kide berriak atxikitzeke baliatu.

- Bigarrenik, 1995etik aurrera, EAJk “Ollora bidea” deritzona planteatu zuen: alderdien arteko negoziazioa aurreikusten zuen Euskadiko bakegintzarako, ETaren su-etenak lagunduta eta autodeterminazioaren inguruko akordioa oinarri hartuta. Garai hartan Palestinako eta Ipar Irlandako gatazken inguruan abiarazitako bake-prozesuak hartu zituen eredutzat.

- Hirugarrenik, 1997ko uztailean ETAk Miguel Angel Blanco, Ermuko PPko zinegotzi gaztea, hil zuen. ETaren historiako hilketa izugarrienetako bat izan zen, Ortega Lara espetxeetako funtzionarioa ETAk 532 egun bahituta eduki ondoren, Guardia Zibilak egun batzuk lehenago askatu izana erakundearentzat sekulako porrota izan zenaren aurrean, nolabaiteko mendeku basatia, hain zuzen. Bada hilketa horrek benetako asaldura soziala sorrarazi zuen eta antolatutako mobilizazioetan ETaren aurka milioika lagun atera ziren kalera –horietatik, milaka eta milaka Euskadin–. Terrorismoaren aurkako halako katarsi kolektiboa izan zen, eta herritarren matxinada, une zehatz batzuetan ETA eta bere inguruari ez ezik, nazionalismo osoari zuzenduta zirudiena.

- Laugarrenik, ETAk ustekabeko kolpe erabakigarriak hartu zituen poliziaren eskutik, baita ustekabeko taktikoak ere: I.Lopez Riaño eta J. Urrusolo Sistiagaren atxilotetak; Ortega Lara askatzea; komando garrantzitsuak desagitea 1997 eta 1998 artean eta 100 aktibista ingururen atxiloteta (García Gaztelu *Txapote*, Josu Bolinaga eta Jose Arizkuren Ruiz *Kantauri*); erakundearen egitura ekonomikoa desagitea. 1997ko abenduan, “banda armatuarekin lankidetzan aritu izanagatik” Herri Batasuneko 23 buruzagi nagusiak zazpi urteko espetxera kondenatu zituen Auzitegi Gorenak (gerora, zigorrak nabarmen murriztu bazituzten ere); 1998an, Garzón epaileak *Egin* egunkaria itxi zuen. 1977a geroztik Hernanin zuen egoitza eta ezker abertzalearen espektrorik ideologikoan eta soziologikoan zegoen kokatua.

Ermuak, Miguel Angel Blancoren erailketaren aurkako mobilizazio sozialak eta erreakzio politikoak batez ere, norabide aldaketa bat ekarri zuen egoeraren oreka estrategikoan: ETak aurrea hartzeari utzi zion; gainbehera zihoan eta ez bakarrik akzio- eta erresistentzia-indar gisa zuen irudia, baizik eta bere izateko arrazoiak ere, baita bere aldeko askorentzat ere; eta gainbehera hori, ordurako, atzerazina zen, zurrenik:

- indar nazionalistek (EAJ, EA, sindikatu nazionalistek, zenbait erakunde abertzalek) Euskadiren bakegintzaren aldeko apustua egin zuten, ETA-HBekin indarkeriari elkarrizketa bidezko amaie-

ra emateko eta oinarri hauek kontuan hartuta: autodeterminazio-eskubidea euren gain hartzea, 1988ko Ajuria Eneko Ituna gaindituzat jotzea eta indar nazionalistek 1997ko amaiera geroztik agortuta jotzen zuten 1979ko Estatutuaren marko politikoa zabaltzeko exigentzia.

– 1998ko martxoan, Jose A. Ardanza Lehendakariak berak, bake-plan bat eman zuen ezagutzera. Plan horretan, batetik, elkarrizketaren bidezko irtenbidea proposatzen zuen gatazkarentzat, baina horretarako, aurretik ETAk borroka utzi behar zuen eta HBk indarrean zegoen sistema demokratikoa onartu behar zuen; eta, bestetik, euskal alderdi politiko nazionalista eta ez-nazionalisten arteko elkarrizketa, baldintza eta mugarik gabekoa, eta “nazio arazoa” (“cuestión nacional” deitzen zitzaiona), hau da, Euskadiren autogobernuaren eredia ardatz hartuta.

– Ardanza Lehendakari zuela, 1986a geroztik gobernuan zegoen PNV-PSE koalizioa apurtu egin zen eta 1998ko irailaren 12an, EAJk eta HBk (1997ko atxiloketa eta prozesuen ondoren, Arnaldo Otegi eta Joseba Permach zituen zuzendaritza berrian), eta haiekin batera EAK, ELA eta LAB sindikatuek eta era guztietako 24 erakundek, Lizarra-Garaziko Adierazpena izenpetu zuten. Hona itun horrek proposatzen zuena: elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekia eta inor kanpoan utzi gabe, “inolako indarkeria adierazpenik gabeko” baldintzapean eta gatazkaren arrazoitzat jotzen ziren gaiak (“lurraldetasuna”, “erabakiaren subjektua” eta “subiranotasun politikoa”) aztertu eta irtenbide bat ematea ahalbidetuko zuena. Lau egun geroago, irailaren 16an, ETAk “su-eten” iraunkorra iragarri zuen.

Lizarra-Garaziko Itunera batutako erakunde sozial, politiko eta sindikal ia guztiak nazionalistak ziren, eta ezker abertzalea politika autonomikoan eta instituzionalean integratzeko eta bakegintzarako benetako aukeraren funts politiko gisa aurkeztu zuten ituna. Aukera horrek ez zuen, ordea, behar beste integratzen euskal politikaren pluraltasuna. Lizarra-Garaziko Itunak herriaren zatiketa sakondu baino ez zuen egin. 1998ko urriko euskal hauteskundeetan boto ez-nazionalisten kopurua (Euskadiko Alderdi Sozialista, Alderdi Popularra, Ezker Batua, Unidad Alavesa) %44,4koa izan zen. 1999ko Europako hauteskundeetan eta udal hauteskundeetan, Lizarra ondoren egin ziren lehenengoetan, Alderdi Popularrak –agintean Espainian 1996 eta 2004a artean– Araba eta Gasteiz, Euskadiko hiriburu ofiziala, kendu zizkion nazionalismoari; sozialistek irabazi zuten Donostian eta Eibar, Ermua, Irun, Barakaldo eta Sestao bezalako euskal udalerrri garrantzitsuenetan. Ez-nazionalistek Euskadiren errealitate politikoa osatzen zuten: Basta Ya plataformak deitutako ETArek aurkako manifestazio handi batek hartu zituen Donostiako kaleak 2000. urteko irailaren 23an. Konstituzionalismoaren eta askatasunaren aldeko defentsan PP eta PSOEren arteko hurbilketa indar-erlazioa aldatzeko zorian egon zen 2001eko hauteskundeetan: nazionalistek botoen %52,19 jaso zuten eta ez-nazionalistek, botoen %46 (658.990 boto).

ETAk eta bere inguruak Euskadiren “eraikuntza nazionalerako” indar nazionalisten konpromisoa ikusi zuten Lizarrako akordioan. 2000. urteko urtarrilean, EAJ eta EAK lehentasuna bakeari ematen ziotela ikusita, ETAk su-etena apurtu zuen: 2000 eta 2004 bitartean 46 lagun hil zituen (esaterako, 2000. urtean Fernando Buesa, PSEko buruzagi eta Lehendakariorde ohia 1991 eta 1995 bitartean; Ernest Lluch, Espainiako gobernu ministro izandakoa, Jose Luis Lopez de Lacalle eta Jose M^a Korta, Gipuzkoako patronalaren presidentea; 2003an Joseba Pagazaurtundua; 2000. urtean Jose Ramon Rekalde eta 2001ean Gorka Landaburu larriki zauritu zituen, euskal gizarteko pertsona garrantzitsuak zirenak aipatze aldera soilik). Kale-borroka zabaldu egin zen: 1999an bakarrik, Euskadin gisa horretako 310 eraso zenbatu ziren.

1999-2001 biurtekoan etengabeko enfrentamendu instituzionala egon zen Espainiako gobernuaren (Aznar) eta EAeko gobernuaren artean (1999ko urtarrilean Ibarretxek hartu zuen Ardanzaren lekua Eusko Jaurkitzan). Aznarren gobernuak (1996-2004), 1999ko su-etena iraun zuen bitartean ETArekin harremanetan egon bazen ere, irmotasun handiz erantzun zien erronka berriei. Alderdien Lege onartu berria baliatuta, 2003an Garzón epaileak legez kanpo utzi zuen Batasuna eta, urte berean, Del Olmo epaileak euskaraz argitaratzen zen *Egunkaria* ixteko eta zuzendaritzakoak atxilotzeko agindua eman zuen, ustez ETArekin zuten loturagatik. Akusazioa artxibatu egin zuten urte batzuk geroago eta zuzendaritza taldeko zenbait kidek tratu txarren salaketa jarri zuten polizia-indarren aurka. 1989an abiarazitako ETAko presoek dispersio- eta urrutze-politikaren aurka jende asko agertu zen Eus-

kadin, eta hala jarraitu du izaten, funtsezko aldaketarik gabe eutsi baitzaio 2011n ETAk bere ekintza terroristen amaiera iragarri eta gero ere.

2001eko hauteskundeak irabazi eta gero, Ibarretxe Lehendakariak Autonomia-estatutu berri bat sustatzeko borondatea iragarri zuen, bere autodeterminazio eskubidea askatasunez baliatuta, Euskadi Espainiako estatuarekiko “elkartze librean” oinarritutako harreman-araubidea izango zuen komunitate bihurtzeko.

ETAren gainbehera

Euskal gizartea zaurituta zegoen. Ez, ordea, erabat suntsitua. Banketxe garrantzitsuen eta aurrezki kutxa sendoen egoitza zen, baita estatuko enpresa handiena ere; kargatzeko bi portu handi zituen; milaka enpresako industria-sarea, enpresen munduan eskarmentu luze eta dinamikoa, eskulan oso kualifikatua, komunikazio-sare ona eta geografikoki ondo kokatua. Euskadiren beherakada ekonomikoa, ia definizioz, beherakada erlatiboa izan zen, sekula ez erabatekoa edota atzera ezina. Apurka apurka, 1985etik mende amaierako tartean, nazioarteko errekupeazio ekonomikoak, Espainia Europan sartzeak, Espainiako birmoldaketa industrialak, Ekonomia Itunak, euskal enpresen dinamismoak eta Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen kudeaketa efizienteak ziklo-aldaketa ekarri zuten.

Krisi ekonomikoa gainditzen hasi zen 1985etik aurrera. Euskal BPGk, batez beste, %5,22ko hazkunde-tasa izan zuen urtean 1985 eta 1990 bitartean, eta %5,09koa 1995 eta 2000 bitartean. Langa-bezia-tasari dagokionez, %25 ingurukoa zen 1985ean eta enplegu beteko egoera zegoen 2007an. 1998an, Europar Batasuneko aberastasunaren batez bestekora iritsita zegoen Euskadi; 2005ean, ordea, gainditu egiten zuen %18an. Errekuperazioak transformazio ekonomiko eta soziala ekarri zuen berarekin, aurretik gertatutako beste batzuk (1880-1914ko industrializazioa eta 1950-75eko desarrollismo handia, esaterako) izan zuten garrantzi eta helmen parekoa izan zuena. Siderurgia astuna eta ontzigintza ia erabat desagertu ziren 80ko hamarkadetan, baita papergintza bezalako beste sektore tradizional batzuk ere, eta horrek, sektore ekonomikoen pisua aldarazi zuen, baita euskal ekonomia-aren eta lan-merkatuaren egitura bera ere. Hirugarren sektoreak eta zerbitzuen sektoreak zuten pisu gehien Euskadik osatzen zuen eskualdean (enpleguaren %59,1 2001ean). 1985 eta 1994 bitartean sortutako Zamudio, Miramon eta Miñaoko parke teknologikoak ziren abiarazita zegoen ikerketa, berri teknologiko eta berrikuntzarako aldaketaren adierazpena. Mondragon Kooperatiba Korporazioa zen euskal arrakastaren irudi berria. Euskal talde multinazionala 1956ean sortu zen (218 enpresa, 68.260 langile 2003an, gehi ikerketa- eta prestakuntza-zentroak eta finantza-talde propioa) eta etxetresna elektrikoetan, ekipamendu-ondasunetan, automozioan, makina-erremintan, supermerkatuetan (Eroski) eta industriako ekipamenduetan zegoen espezializatua.

1987a geroztik ezagutu zuen iraultza urbanistikoari esker birsortua, Bilbo hiri moderno bikaina zen, obra eta jarduketa ikusgarriak zituen: Guggenheim museoa, Biltzarretarako Euskalduna jauregia, Loiuko aireportua, merkataritza-zentroak, zubi berriak, hotel berriak, eta itsasadarraren ibaiertzetako lehengo lursail degradatuetan, lorategi-guneak eta eskultura ederrez hornitutako pasealekuak. Donostiak ere, aldaketa handiak izan zituen 1975a geroztik (Groseko hondartza, Haizearen Orrazia, unibertsitate-kanpua, zubi berriak ibaiaren gainean, hiri-eremu zaharrak birmoldatuta, Kurasaaleko biltzar-jauregia eta musika auditorioa, Chillida-Leku aire zabaleko museoa...), eta jarraitzen zuen turismo leku ona izaten. Paisaia ederra zuen, hotel dotoreak, Musika Hamabostaldia eta nazioarteko jazz eta zinema festibalak, zaldi lasterketak udan, eta Espainiako gastronomia onena. Vitoria-Gasteiz (227.194 biztanle 2004an) Euskal Autonomia Erkidegoaren hiriburua zen 1980a geroztik, Lehendakaritza eta Eusko Legebiltzarraren egoitza, baita Eusko Jaurlaritzaren Sail ezberdinena ere. Gasteizko hazkundera eredugarria izan zen: bikain urbanizatutako zabalgunek, erdiguneko plaza eta kaleak birmoldatuta eta txukunduta, Erdi Aroko hirigunea eta Katedral zaharra zaharberrituta, berdegune ugari, unibertsitate-kanpua, gizarte-etxe eta kultura-etxe eraiki berriak, ospitaleak, kirol- eta merkatal-guneak, industria-poligono berriak, aireportua eta autobide- eta saihebidetako sare bikaina.

Laburbilduta, Euskadi 2001ean (2.133.684 biztanle) –ETAren indarkeriaren epizentroa–, erkidego oparo, aberats eta dinamikoa zen, ahalmen handiko enpresa, teknologia eta industria arloetan (era

guztietako 128.141 enpresa eta 800.000 langiletik gora 2003an), sektore hauek nagusi zirelarik: makineria, elikagaiak, metalurgia eta artikulua metalikoak, material elektrikoa, enpresekiko zerbitzuak eta garraiorako materiala (trenbideko materiala, automozioa, turbo-propultsoreak,...). Lehen sektoreari (nekazaritza eta arrantza) zegokion ekonomiaren balio erantsi gordinaren %1,02; industriari %43,51; zerbitzuei %55,47.

Dinamismo ekonomikoa, industria-birmoldaketa, hedapen urbanistikoa: euskal autonomiak arrakasta zuen; zorte ezberdinarekin baina, oro har, efikaziaz eta zorroztasunez euskal gobernuek baliatu zuten euskal autogobernua, gertakari historiko erabakigarria zen. 1980tik aurrera, euskal erakundeek Euskadi suspertzen eta eratzen lagundu zuten. Adostasun zabala eta gizartearen onarpen eta integrazio maila altua izan zuten honako hauek: ikurrina ofiziala bihurtzeak, ereserkiak, euskarak eta administrazioa mailaka euskalduntzeak, unibertsitateak, komunikabide ofizialek eta zerbitzu publikoek.

Euskalduntzearen aldeko apustu irmoa egin zuten euskal gobernu guztiek 1980tik aurrera eta euskara hedatzea lortu zuten eta, euskal historian lehenengoz, benetako eskaintza kulturala sortzea eta egonkortzea (liburuak eta diskoak euskaraz, telebistan eta irratan programazio zabala hizkuntza horretan, liburu eta disko azokak...). Euskal hiztunen kopurua biztanleen %21,5 izatetik 1981ean, %30,9 izatera igaro zen 1996an (kopurua %43 arte iristen zen Gipuzkoan, baina %7,8 arte besterik ez Araban). 2002-2003 tartean ikasketak euskara hutsean egiten zituzten haurren kopurua %62 zen; euskaraz eta gaztelaniaz %30 eta gaztelaniaz bakarrik %7.

1979ko Estatutuaren autonomiak eragina izan zuen 2011n ETA borroka armatua bertan behera uztera eramane zuten giro kolektiboan. Batera eman ziren faktore eta zirkunstantzia ezberdinek eraginda iritsi zen ETAREN amaiera:

1. Erregimen autonomikoarekin pozik zegoen jendea neurri handi batean, herritarrak gutxien zaitzen zituen sistema baitzen. Bestalde, euskal gizartearen eta herritarren eguneroko bizitzan ezartzen joan zen eta zabaltzen, pixkanaka eta atzera bueltarik gabe, bizikidetzaren aldeko konpromisoa, desberdinak direnekiko errespetuan, printzipio demokratikoetan eta soilik bide baketsu eta demokratikoetan oinarritutako bizikidetzan, alegia.
2. "Bakearen kulturak" (mugimendu bakezaleek bultzatutako terrorismoaren aurkako mobilizazioak eta keinuak) sorrarazitako bakearen aldeko gero eta kontzientziario handiagoa; alderdi politikoak; gobernuaren eta ETAREN arteko noizbehinkako –eta oraindik huts egindako– negoziazioak; Lizarrak (ezker abertzaleak prozesuan eta instituzioetan parte hartzea lortu baitzuen, gutxienez); Aralarren bereizketa, indarkeria baztertzeko zuela-eta HB utzi baitzuen; eta ETAKO preso batzuk, erakundetik apartatuta (J.L. Alvarez Santacristina *Txelis*, Kepa Pikabea, Carmen Gisasola, Joseba Urrusolo, esaterako) indarkeriaren aurkako jarrera ezagutzera eman zuten.
3. "Sufrimenduaren sozializazioa" akats estrategiko larria izan zen: Espainiar estatuko segurtasun indarren eta indar militarren aurkako erresistentzia-borroka gisa ikus zitekeena hasieran, bizitza zibileko jende ospetsuaren aurkako krimen terroristak gisa baino ez zen ikusten orain. Are gehiago, 2001eko irailaren 11ko (New York) eta 2004ko martxoaren 11ko (Madril) atentatu islamistek behin betiko suntsitu zuten, arrazoia edozein izanda ere –independentzia, ETAREN kasuan– ordura arte egindako borroka armatu terroristaren gaineko edozein balorazio positibo.
4. Euskal nazionalista eta abertzaleen artean irekitako hausnarketa estrategikoa euren etorkizunari buruz, hain zuzen 2009ko martxoko hauteskundearen ondoren (ezker abertzalea legez kanpo utzita zegoela) Patxi Lopezek lehen gobernu ez nazionalista osatu ondoren, eta kontuan hartuta urte batzuk lehenago Ibarretxe Plana baztertua izan zela 2005ean. Plan horrek, bestalde, eragin nabarmena izan zuen ezker abertzalearen oinarri sozialetan, subiranotasuna lortzeko bide baketsu bezala ikusten zuten-eta.
5. Ezker abertzalearen aurkako presio errepresiboa –politikoa, judiziala eta ekonomikoa–, 2003an Batasuna debekatu eta gero, bata bestearen atzean hark sortzen zituen alderdi politiko eta antolakunde sozialak legez kanpo uztea bezalako neurri eztabaidagarriekin.

6. Espainiako gobernuaren eta ETAREN arteko azken negoziazio saiakerak huts egiteak sortu zuen dezepzio kolektibo handia (ETAri errua egotzita). 2007an erakunde terroristak hala erabakita, bertan behera geratu zen Zapateroren gobernuak 2006ko ekainean iragarritako “bake prozesua” urte horretako abenduaren 26an Madrilgo aireportuko 4. terminalean ETAK egindako atentatu basatiarekin (200 kg. lehergai).

7. Polizia-lanaren efikazia gero eta handiagoa. Frantziako Poliziak eta Guardia Zibilak Frantziako hegoaldean atxilotu zituen, 2004ko urriaren 3an, Mikel *Antza*, ETako buruzagi politikoa, Soledad Iparragirre eta erakundeko aparatu logistiko osoa. 2000tik aurrera, edo aurretik beharbada, jada kideak erreklutatze arazo larriak zituela, ETA ez zen erreuperatu. *Antza* eta gero ETAREN buruzagitzara iritsi ziren guztiak atxilotuak izan ziren ia berehala: López Peña *Thierry*, bake prozesuaren porrotaren erantzulea, Garikoitz Aspiazu *Txeroki* eta Aitzol Iriondo 2008an; Jurdan Martitegi eta Aitor Elizaran 2009an; Ibon Gogeaskoetxea eta Mikel Karrera Sarobe *Ata* 2010ean; A. Zobaran *Xarla* 2011n.

ETA akabatuta zegoen: zuzendaritzarik gabe, estrategiarik gabe, ia militanterik gabe. Azken atentatuak –guardia zibil biren hilketak Palman 2009ko uztailaren 30ean, eta Jean Serge Nérin, polizia frantsesarena Dammarie-les-Lysen 2010eko martxoaren 16an– amaierako kriminaltasun ekintza loturarik gabekoak eta isolatuak izan ziren.

Ezker abertzaleak eta gizarte-talde ezberdinak biltzen zituen Foro Sozialak zenbait ekitaldi prestatu zituzten ETA presionatzeko eta, aldi berean, azken erabakia errazteko. Nazioartean ere izan zuten nobaiteko babesak ekitaldi horiek (Bruselako Adierazpena, 2010eko martxoan, Nazioarteko Bake Konferentzia Donostian 2011ko urriaren 17an). 2010eko irailaren 5ean, ETAK adierazi zuen defentsarako ekintza armatuak baino ez zituela burutuko; 2011ko urtarrilaren 10eko beste komunikatu batean, su-etan “iraunkor, orokor eta egiaztagarria” iragarri zuen; eta urriaren 20an, “ekintza armatuak behin betiko bertan behera utzi zituela” deklaratu zuen. (Hori guztia, 53 urte, 853 hildako, eta ETAREkin lotutako 3.300 pertsona ingururen atxilotuak eta gero denbora horretan zehar).

Sei urte geroago, 2017ko apirilaren 8an, ETAK aldebakarreko, era bateko eta baldintzarik gabeko armagabetze prozesuari ekin zion eta, hamabi hilabete geroago, 2018ko maiatzaren 3an, “bere ibilbidearen amaiera” eta behin betiko desagertu zela iragarri zuen.

Historia izugarri honek biktima arrasto bat utzi zuen. Erailak, zaurituak, estortsiatuak, bahituak, torturatuak edo jazarriak izatea inolaz ere merezi izan ez zuten pertsonak, gizakiak. Ez ETAREN jazarpena (ETA izan zen aldi horretan bizitzeko eskubidea gehien urratu zuena, 853 lagun hil baitzituen), ez eta beste inolako antolakunde terroristak baten edota botere-abusuaren jazarpena merezi izan ez zutenak, alegia. Inoiz halakorik gertatu behar izan ez bazen ere, familia osoek ikusi zituzten zapuztuta euren bizitzako historiak, euren desira onenak eta proiektuak.

Azken bost hamarkada hauetan biktimek bizi izan duten errealitateak merezi du gogoeta egitea, bartzuetan izan duten presentzia edo absentiarengatik, eta erabiliak edota ukatuak izan direlako.

70eko eta 80ko hamarkadetan terrorismoaren biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari zegokionean, nabarmen gertatu ziren gabeziak. Biktimak ez zeuden agendan, ez ikusiarena egiten zen haiekin. Jarrera hori dela eta, autokritika argiak eta esanguratsuak egin dira gero. Euskal erakundeek, gutxienez, hala egin dute. 90eko hamarkadan joan zen apurka apurka hedatzen errekonozimendua eta elkartasuna eskaini behararen inguruko sentsibilizazioa. Horretarako, biktimen elkarten eta beste eragile sozial batzuen eginkizuna oso garrantzitsua izan zen. Eta 2000. urtetik aurrera, terrorismoaren biktimei babesak eta elkartasuna emateko araudi-mailan, erakundeetan eta gizartearen urratsak eman dira. Babes hori, hobetu badaiteke ere, handitzen joan da urtez urte. Eusko Legebiltzarrak 2008an onartu zuen Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea. 2018an, ordea, erresistentziak daude oraindik ere ekintza polizialek edo parapolizialek eragindako giza eskubideen urraketen biktimei legezko aitorpena eta erreparazioa emateko, batez ere trantsizio garaian edota demokraziaren lehen urteetan izandako ekintzen biktimei.

Iraganean gertatu behar izan ez zuenaren lekukotza eta testigantza dute biktimek, gaur egun modu kritikoan eta autokritikoan salatu behar den injustiziarena, eta etorkizunean berriz gertatu behar ez duenaren horrena.

ETAk arrasto ezabaezina utziko du Euskadiren eta Espainiaren historian. Gertakari historiko orekin gertatzen den bezala, gertatutakoa ezagutzeak galdera eta arazo enpiriko, analitiko eta interpretazio-arazo ugari sortzen du: historia arazoan azterketa da, ez kausa baten defentsa. Halaber, ETAk arazo moral larriak sortzen ditu gertatutakoaren erruduntasunaren eta erantzukizunaren inguruan. Bi galderatan laburbildu dezakegu:

- Nola gertatu zen?
- Hainbeste sufrimendu, zertarako?

2. Kronologia bat

URTEA	DATUAK
1960	Euskal kleroaren lehen adierazpen publikoa diktaduraren aurka. ETAren lehen agerpenak: pintadak, ikurrinak jartzea eta sabotajeak monumentuetan.
1962	Europako Batzorde Ekonomikoan sartzeko eskaera. Ordena Publikorako Auzitegia martxan jartzen da. Barneko eta erbesteko politikarien bilera Munichen. Meatzarien greba handiak Asturiasen. BPGaren hazkundera Espainian (1960-1973), urteko batazbestekoa %7,3a.
1963	Lehenengo Garapen Plana. Intelektualen gutuna Francori torturaren aurka. Julian Grimauren exekuzioa. Garapen-elkarguneen sorrera: Valladolid, Burgos... Landa-ingurutatik emigrazio masiboak Europara eta garatutako Espainiako hiriburu eta probintzia handietara.
1964	Garapen Ekonomikorako Lehen Plana abiarazten da.
1965	Ikasleak asaldatuta. Montserrateko abadea Espainiatik erbesteratua.
1966	Hauteskunde sindikalak. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra.
1967	Monetaren devaluazioa. Inflazioa. Langileen manifestazioak Estatu osoan. Langileen mugimendua politizatzen pixkanaka.
1968	Greba. ETAren lehen erailketa: José Pardines guardia zibila hil zuen kontrol batean Villabonan. Ordu gutxira, ETAko kide Txabi Etxebarrieta hil zen Guardia Zibilarekin izandako tiroketa batean Tolosan. Planifikatutako ETAren lehen atentatu mortala: Melitón Manzanos.
1969	Salbuespen-egoera estatu osoan bi hilabetez. MATESA eskandalua. Francok Juan Carlos I.a printze eta Espainiako hurrengo errege izendatu. Guerrilleros de Cristo Rey taldearen lehen bonba-paketea.
1970	Burgosko prozesua. Bilboko Unibertsitate Autonomoaren sorrera.
1971	Derrigorrezko soldadutzaren aurkako lehenengo kontzientzia-eragozleak.
1972	Iparretarrak taldea jaio zen.
1973	ETAren atentatu mortala Madrilen Luis Carrero Blanco almirante eta Gobernuako presidentearen aurka. CCOOren aurkako 1.001 prozesua. FRAP jaio zen.

1974	<p>Carlos Arias Navarro, Espainiako Gobernuaren Presidente. Heriotza-zigorra Salvador Puig Antich eta Heinz Chez-entzat: garrotez exekutatuak. Bonba Madrilgo Rolando kafetegian: 13 hildako. Erreibindikazio ezak ETAm eta ETApm-ren zatiketa ekarri zuen. Franco gaixorik, Juan Carlos I Printzeak hartzen du behin-behingo Estatu burutza. Alderdi Sozialistaren Suresnes-eko biltzarra.</p>
1975	<p>Frankismoaren azken fusilamenduak: Txiki, Otaegi, Baena, García eta Sánchez. Hiritarren mobilizazioak eta salbuespen-egoera berriz ere. Lehenengo atentatu mortalak BVE, Triple A... Konbergentzia Demokratikoko Plataforma sortu zen. Marta Berdea Marokori eta Mauritaniari eskualdatzen zaie Mendebaldeko Sahararen administrazioa. Franco hil eta Gorteek Juan Carlos I.a errege izendatzen dute.</p>
1976	<p>Juan Carlos I.ak Adolfo Suarez izendatzen du Gobernu presidentea, Arias Navarro kargutik kendu ondoren. Erreforma Politikoen Legea onartzen da erreferendumean. Manuel Fraga Alianza Popularreko buru. ETApm-ek Angel Berazadi bahitu eta hil. Pertur desagertu zen. Segurtasun Indarrek Gasteizko San Frantzisko elizan langileen elkarretaratze bat errepresionatzen dute; emaitza: 5 hildako.</p>
1977	<p>PCEko abokatuen hilketak Atotxan eskuin muturreko talde armatu baten eskutik. Azken salbuespen-egoera. Bartzelonako kondeak, Juan Carlos I.aren aitak, uko egiten dio Errege Etxearen buruzagitzari. Komando Autonomo Antikapitalistak jaiotzen dira. Alderdi politiko gehienak legeztatzen dira, baita Alderdi Komunista ere, 1936a geroztik egingo diren lehenengo legeztatze-hauteskunde demokratikoak baino lehenago. ETAko buruzagi nagusien askapena eta erbesteratzea. Alderdi independentistak ez dira legeztatuko eta Alderdi Karlista hauteskunderen ondoren legeztatuko dute. UCDren garaipena eta Suarez, presidentea aukeratzen da, demokratikoki oraino. Gorte Konstituziogileak ireki ziren. Moncloako itunak. Amnistia orokorra. 1977ko abenduan ez da geratzen ETako preso politikorik Espainiako espetxeetan. Kataluniako Generalitatea berriz ezarri. Tarradellas Espainiara itzultzen da. TOP delakoa kendu eta Auzitegi Nazionalaren sorrera. ETAk eragindako lehen hildakoa Nafarroan. Xibertako bilera.</p>
1978	<p>Eusko Kontseilu Nagusia osatzen da, Ramon Rubial buru duena. Estatuaren kontrako militarren, polizien eta guardia zibilen Galaxia operazioa, huts egingo zuena. Konstituzioari buruzko erreferenduma. Onartua izan zen. Kas Alternatiba. ETAren aurkako lehen manifestazio jendetsua.</p>
1979	<p>Lehenengo udal-hauteskunde demokratikoak. Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako Autonomia Estatutuak onartu ziren. Jose Maria Setien Donostiako Gotzaina (2000. urtera arte). ETAk 80 hildako eragin zituen.</p>


1980	Hauteskunde autonomikoak Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Katalunian. Carlos Garaikoetxea (EAJ) eta Jordi Pujol (CiU), hurrenez hurren, irabazle. ETAk 96 hildako eragin zituen.
1981	Adolfo Suarezren dimisioa; Leopoldo Calvo Sotelok ordezkatzten du. Otsailean: ETAm-ak Jose M ^a Ryan, Lemoizko zentral nuklearraren zuzendaria hil zuen; Joseba Arregi DGSn hil zen torturapean, eta huts egingo du militarren eta guardia zibilen otsailaren 23ko estatu kolpeak. Terrorismoaren Biktimen Senitartekoen Ermandadea sortzen da, gero AVT izango dena. Dibortzioaren Legea. Euskal Ekonomia Ituna. Foru Hobekuntzaren Legea: Nafarroako Foru Komunitatearen sorrera. Espainiako Gobernuak garapen autonomikoa geldiarazten duen legea (LOAPA) iragaritzen du.
1982	PSOeren gehiengo absolutua hauteskunde orokorretan. Felipe Gonzalez, Gobernuko presidente. Espainiako trantsizio politikoaren amaieratzat jo da gertakari hori. Bakearen Artisauak taldearen elkarretaratzea isilik, indarkeriaren aurka. Ertzaintzaren Polizia-kidegoa sortu. ETA Politiko Militarrak (VII. Asanblada) desegin egingo dela iragarri.
1983	Sozialistek udal-hauteskundeak irabazten dituzte Espainian. GAL agertzen da Segundo Mareyren bahiketarekin. Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahitu, torturatu eta hiltzen dituzte. Rumasaren desjabetzea.
1984	GALek Santiago Brouard erail. Industria-birmoldaketa gatazka sozial handiarekin, batez ere Bizkaian.
1985	Gesto por la Paz ekimenaren lehenengo ordu laurdeneko elkarretaratzea. Gesto por la Paz - Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea eratu zen 1989an. Jose Antonio Ardantza Lehendakari Carlos Garaikoetxearen ordezkari.
1986	Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartzen da ofizialki. Espainiak OTANen jarraitu behar duen erabakitze erreferenduma. Baiezkoak irabazten du Estatuan orokorrean. Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Kanarietan eta Katalunian, ordea, ezezkoak. ETAk, Yoyes, erakundeko kide izandakoa hilko du Ordizian. GALek Josu Muguruza hil.
1987	ETAk bonba-auto bat jarri zuen Bartzelonan Hipercor merkataritza-gunean (21 hildako) eta beste bat Zaragozako kuartel-etxearen aurka (11 hildako, bost haur horien artean) GALen azken atentatua. Madrilgo Ituna: ETArekin ez da gai politikorik negoziatuko.
1988	Ajuria Eneko Ituna. Bakearen eta Tolerantziaren aldeko Akordioa edo Nafarroako Ituna. ETAk hirutan eskainiko du su-etena.
1989	Argeleko elkarrizketak (huts egin zutenak) Espainiako Gobernuaren eta ETAREN artean. Hiru hilabeteko su-etena. Presoak urrutiagoko espetxeetara bidaltzen hasten dira (dispertsioa). Lehenengo intsumisoak soldadutzari eta ordezkari zerbitzu sozialari.
1991	ETAREN atentatua Guardia Zibilarren Vic-eko kuartel-etxearen aurka: 9 hildako, horien artean lau haur.

1992	Elkarri jaioko da. ETAren zuzendaritza erori Bidarten. Bartzelonako Olinpiar Jokoak. Sevillako Erakusketa Unibertsala.
1993	Lazo urdinaren kanpaina ETAk Julio Iglesias Zamora bahitu duela-eta. Hurrengo bahiketetan ere erabiliko da.
1995	ETAk Gregorio Ordoñez hil eta Jose Maria Aznar hiltzen saiatuko da.
1996	ETAk Jose Antonio Ortega Lara bahituko du: 532 egun. PPk hauteskunde orokorrak irabazi. Aznar Presidente. ETAk Francisco Tomás y Valiente erailtzen du.
1997	ETAk Miguel Angel Blanco, PPko zinegotzia bahitu eta hil egingo du. Mobilizazio jendetsuak. Ermuko espiritua. <i>Manos Blancas</i> . IRAren behin betiko su-etena Irlandan.
1998	Stormont-eko akordioa Irlandan. Lizarra-Garaziko akordioa. ETAk 14 hilabete iraungo duen su-etena iragarriko du. Bilera Genevan ETAko eta Aznarren gobernuak ordezkariek artean. Marey kasuko epaiak espetxera eramango ditu Jose Barrionuevo ministroa eta Estatuko Segurtasuneko idazkari Rafael Vera. Egin egunkariaren itxiera. Covite jaioko da.
1999	ETAren su-etena bertan behera geratuko da. Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legea. Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria aukeratzen da.
2000	PPk eta PSOEek terrorismoaren aurkako ituna eta "Alderdien Legea" bultzatuko dute. ETAk Fernando Buesa eta Jorge Diez hilko ditu Gasteizen. PPren gehiengo absolutua hauteskunde orokorretan. ETAk Ernest Lluch eta José Luis López de la Calle erailtzen ditu.
2001	Nahitaezko soldadutza bertan behera geratuko da. Irailaren 11ko atentatuak New Yorken. Espainiako armadak Afganistango gerran parte hartuko du. Víctimas del Terrorismo Fundazioa jaioko da.
2003	Protestak Espainiako Gobernuak Irakeko gerra babesten duelako. Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak "elkartze librearen" proposamena aurkeztuko du Eusko Legebiltzarrean. Aznarren Gobernuak Zigor Kodea aldatuko du erreferendum-deialdiak espetxearekin zigortzeko. Auzitegi Gorenak HB, Euskal Herritarrok eta Batasunaren ilegalizazioa eta disoluzioa dekretatzen du Alderdien Legearekin. Egunkariaren itxiera.
2004	Martxoak 11: Al-Qaeda-ren atentatu terrorista larria Madrilan. 192 hildako eta 2.000 inguru zauritu. Jose Luis Rodriguez Zapaterok (PSOE) legegintza-hauteskundeak irabazi. Mikel Albisu <i>Antza</i> eta Soledad Iparragire <i>Anbotoren</i> atxilotzea.

2005	Diputatuen Kongresuak atzera bota zuen Autonomia-estatutuaren erreformarako Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamena, Ibarretxe Plana bezala ezagutzen dena. Kongresua ETArekin hitz egiteko prest agertuko da “baldin eta indarkeriaren amaiera elkarrizketatu baterako baldintza egokiak gertatzen badira, indarkeriari amaiera emateko borondate argian eta hala gertatzen dela ustea emango duten zalantzarik gabeko jarretan oinarrituta”.
2006	ETAren su-etena. Bederatzi hilabete geroago, ETAren atentatua Barajaseko T4an: bi hildako eta “su-eten iraunkorra” eta Lausana eta Oslon hasitako elkarrizketak, baita Loiolako PNV, PSE-EE eta Batasunaren artekoak ere, bertan behera.
2007	Memoria Historikoaren Legea, PPren aurkako botoekin. ETArekin elkarrizketak Genevan. Patxi Lopez Lehendakari aukeratzen da: lehen gobernu ez nazionalista Euskadin.
2008	Biktimen Euskal Legea. Kontsulta Legea, Konstituzioaren aurkakotzat jo zuten. Krisi ekonomiko larriaren hasiera.
2010	ETAren azken biktima mortala, Jean-Serge Nérin. Zutik Euskal Herriak soilik bide politiko eta demokratikoen aldeko apustua.
2011	15-M mugimendua. Bakearen aldeko Nazioarteko Biltzarra Aieten. ETAK “jarduera armatua behin betiko geldiaraziko zuela” iragarri. Senatuak Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendu eta Babeserako Legea onartzen du. Laguntzak bateratzen ditu.
2012	Konstituzio Auzitegiak Sortu legeztatzen du. Bakegintza eta Bizikidetzarako Txostena sortzen da Eusko Legebiltzarrean. Biktima ezberdinen arteko Glen Cree ekimena ematen da ezagutzera. Iñigo Urkullu Lehendakari hauteskundeak irabazi eta gero.
2013	Sei milioi langabetu Estatu espainiarrean. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzen da Eusko Jaurlaritzan eta 2017-2020a bitarteko Bake eta Giza Eskubideen Plana onartzen da.
2014	Juan Carlos I.aren abdikazioa, Felipe VI.a Espainiako errege berria.
2017	ETAk, ekimen zibil baten bitartez, arma gordailuak hustu eta Frantziako polizaren eskutara pasatzen dira. Bi atentatu yihadista Bartzelonako Rambletan eta Cambrilsen.
2018	ETA desegin egiten da. Mariano Rajoyren aurkako zentsura-mozioa Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidente izendatzen dute.

Eraskinak

1. eranskina. **ETA**ren historia



2. eranskina. ETaren aurkako **polizia-kolpe** nagusiak

60ko hamarkada

1967, 1968 eta 1969ko salbuespen egoeretan sarekanda masiboak. Azken urte honetan ETaren zuzendaritza atxilotzen dute, 1970ean Burgosko Prozesuan epaituko dutena.

1975

ETapm-ren egiturak desegiten dira eta bere zuzendari-tzaren parte bat atxilotzen dute, Mikel Lejarza *El Lobo* isil-mandataria infiltrazioaren ondoren. Horri urte bereko salbuespen egoera gehitzen zaio.

1984-1987

250tik gora atxilotze eta miaketa, 150 entregatze Frantziatik eta Gabon, Senegal, Sao Tomé, Argelia, Cabo Verde, Venezuela eta abarrera deportazioak eta beranduago Cuba, Santo Domingo, Guadalupe, Panamá eta abarrera. Deportatuaren artean, ETako kide historikoak.

1986

Polizia-kolpea Sokoan. ETaren artxiboak konfiskatzen dira.

1992

ETaren zuzendaritzaren atxilotzea Bidarten (Francisco Mujika Garmendia *Pakito*, Jose Luis Álvarez Santacristina *Txeils*, Joseba Arregi Erostarbe *Fitipaldi*).


1999-2008

ETako buruzagien atxilotze jarraiak Frantzian, 1999ko su-etenaren hausturaren ondoren: *Kantauri* (1999), *Iñaki de Rentería* (2000), *Txapote* eta *Willy* (2001), *Susper* (2002), *Antza* eta *Anboto* (2004), *Thierry* (2008), *Txeroki* eta ondorengoak (2008).


2015

2011ko jarduera armatuaren etetea iragarri zuten David Pla eta Iratxe Sorzabal ETako bozeramaileen atxilotzea.

3. eranskina. Su-etenak eta negoziazio-prozesuak



4. eranskina. Gizarte mugimenduak



Oharra: 1995 eta 2009 artean zenbait fundazio sortu ziren: Gregorio Ordoñez, Fernando Buesa, Joxe Mari Kortaren Bideetik, Mario Onaindia.

5. eranskina. Hildakoak

<p>ETA, ETApM, ETAm, KAA, IK, Iraultza (1968-2011)</p>	<ul style="list-style-type: none">• 853 hildako⁽¹⁾:<ul style="list-style-type: none">-Horietatik, Estatuko segurtasun indarren, Ejerzitoaren eta polizia lokalen 467 kide eta Ertzaintzako 15 kide.-27 ordezkari politiko.-3 hildako kale borrokaren ondorioz⁽²⁾. <p>(1) 82 pertsona bahituak izan ziren, horietako 15 erailak.</p> <p>(2) 10.000tik gora sabotai eta kale borroka ekintza izan ziren.</p>
<p>Talde parapolizialak eskuin muturrekoak. BVE, Triple A, GAL... (1975-1989)</p>	<ul style="list-style-type: none">• 75 hildako.<ul style="list-style-type: none">-Horietako 4 pertsona bahitu ondoren erail zituzten.-2 emakume gazte bortxatuak eta erailak.
<p>Segurtasun Indarrak</p>	<ul style="list-style-type: none">• 70 eta 80⁽¹⁾ hildako⁽²⁾ gutxi gora-behera errepedeetako kontroletan, manifestazioetan, zerbitzutik kanpoko istiluetan.<ul style="list-style-type: none">-Bi hildako komisaldegian⁽³⁾. <p>(1) Ezin da zehaztu kopuru hori argitze gabezia dagoelako kasu gehienetan.</p> <p>(2) Biktima horien %95a 1961 eta 1985 urteen artean.</p> <p>(3) Tortura eta tratu txarren miliaka salaketa zenbatu ziren. Nazioarteko erakunde arabera, tortura ez zen izan sistematikoa ezta soilik noizbehinkakoa ere.</p>

Iturriak: Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1960-2013) (Eusko Jaurlaritza) eta *Informe Foronda. Los efectos del terrorismo en la sociedad vasca* (Raul López Romo).

6. eranskina. **Beste** erakunde terroristak

1969-1974

Guerrilleros de Cristo Rey

“Inkontrolatuak” eta eskuin muturreko zenbait talde, poliziaren eta Mugimenduaren elementuekin lotuta. Lehendabiziko bonba-paketea 1969an. Denden, elkarteen eta abokatuen autoen aurkako lehergailuak, apaizei, maiatzaren 1eko mobilizazioetako parte-hartzaileei eta ikasleei jipoiak. Eraso hauek ez zituzten hartu bere gain. Ez zuten hildakorik eragin.

1975-1982

BVE, Triple A, GAE, GANE, ATE...

Sigla hauek modu bereizezinean erabiltzen ziren. ETA pertsegitzen zuten, baina baita oposizio osoa eta euskal nazionalismoa orokorrean ere. Hildakoak eragin zituzten lehendabiziko bi atentatuak 1975ean gertatu ziren. Guztira, 42 hildako, zenbait kasu argitu gabe dauden arren. Lehenbiziko bahiketa 19 urteko emakume ikasle batena izan zen 1980an. Atentaturik gehieneko urtea 1980 izan zen; ETAK atentatu gehien burutu zituen urtearekin bat eginez.

1983-1989

GAL (Askapenerako Terrorismoaren aurkako Taldeak)

Lehenbiziko erreibindikazioa Segundo Mareyren bahiketarena izan zen, Lasa eta Zabalaren bahiketekin, torturekin eta erailketekin batera gertatu zena. GALek hildakoak eragin zituen 27 atentatuetan, Estatuaren maila desberdinek hartu zuten parte. Gobernu sozialistaren Barne Ministerioko goi-kargu guztiak epaitu eta zigortu zituzten: Estatuko Segurtasun Zuzendaria, Barne Ministroa, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernadore Zibila, Intxaurrendoko Guardia Zibilaren Komandantea eta Poliziaren zenbait komisario.

7. eranskina. Non egon zen **euskal gizartea**

“Ez ikusiarena egin zuen”, “gizarte gaixoa bezala jokatu zuen”, “beste alde batera begiratu zuen” edo “ez zuen jakin erreakzionatzen...”. Nola bizi izan zuen euskal gizarteak historia hau eta non egon zen? Lehenik eta behin baieztatu behar da, erreakzioa ez zela izan homogenea ezta estatikoa ere. Euskal gizarte guztia frankismoaren aurka lehen lerroan egon zela esan ezin den bezala, ezin da esan orokorrean ETAREN babes-konplizea izan zenik egintzaz edo utzikieriaz.

Inkesten bidezko ikerketen sekuentzia luzeenak (Javier Elzo) konfirmatzen du ETARI emandako babesa beti minoritarioa izan zela. Galdera da ea zergatik ez zen begi-bistakoa egin lehenago. Gertakarien eboluzioak eragin handia izan zuen bi epetan: 80ko hamarkadaren amaiera baino lehen eta ondoren.

80ko hamarkadaren bukaeratik, gizartearen erantzuna handitzen doa Euskadin modu mailakatuan argi eta garbi. Mobilizazio handiez gain, agerian utziko dute hau, besteak beste, Bakearen aldeko Koordinakundeak (1986) elkarretaratze isilekin, Ajuria Eneko Itunak (1988) euskal alderdi guztiak elkartuz ETAREN aurrean; edo Elkarrik (1992) indarkeriaren aurrean elkarriketa defendituz.

Zer geratu zen aurretik. Hamarkada hauetan, batez ere 80ko hamarkadaren hasieran, ETAREN terrorismoak aldi odoltsuena eragiten du. Euskadin bizitzaren aurkako eskubidearen bortxaketa erabili zuen eragilerik nagusia eta handiena izan zen. 1987aren amaieraraino, 586 hildako eragin zituen. Kopuru hori ikusita ez dago besterik esateko.

Hasi zenean, ETA gizartearengandik oso konprenitua izan zen (ez bakarrik Euskadin), diktaduraren gaitzespenaren eta Burgosko Epaiketaren nazioarteko ondorioen eraginez. Trantsizioan, errepresioa eta erakunde parapolizialen edo eskuin muturreko erakundeen atentatuak; eta 80ko hamarkadan, 23-F Estatu-kolpea, eta GAL erakundea, 1983tik 1987ra aritu zena 29 hildako eraginez, ETA indartu zuten.

Erakusgai bat testuinguru honetan: 1981eko otsailean, 8 egunetan, ETAK Jose Maria Ryan Lemoizko Zentral Nuklearraren ingeniaria erail zuen eta Joseba Arregi ETAKO kidea hil zen torturen ondorioz. Erantzuna: greba orokor bana eta mobilizazio jendetsuak. Denbora honetan, euskal gizartea harrapatuta, derrigortua, astindua eta isildua, erreferentziarik eta erantzunerako lidergo argirik gabe bizi izan zen.

Zenbait ondorio atera ditzakegu:

- 60ko eta 70eko hamarkadetan eta trantsizioan ondo sartuta, euskal gizarteak erregimen frankista eta bere ondorio errepresiboa pairatzeaz gain beldurra pasa zuen.
- 70eko eta 80ko hamarkadetan euskal gizartea gainezka egin zegoen, su gurutzatuaren anbiguasunean murgilduta, eta ez zen sentikor izan biktimen errealitatearen ezta hauenganako ikusgaitasun desberdinaren aurrean, ETAK eragindako biktimen kasuan, bereziki.
- Beti egon zen gutxiengo irmo bat ETA babestu eta legitimatu izan zuena espreski.
- Beti egon zen parte bat, baita gutxiengoa eta txikituz joan zena, ETA ulertu izan zuena.
- Beti egon zen gutxiengo bat handituz joan zena ETAREN aurka inplikatu, antolatu eta mobilizatu zena.
- Frankismoaren amaieratik, beti egon zen gehiengo bat handituz joan zena ETAREN aurka.
- Euskal gizarte osoaren aurkako deskalifikazio zabalduak bere populazioa eta denboran ere osotasun homogeen bat bezala hartuta, estigmatizazio bidegabea dira.

Gertatutakotik larriena izan zen 70eko eta 80ko hamarkadetan biktimak ez zeudela mintzaldi politikoetan, ezta komunikabideetan, ezta Ajuria Eneko Itunaren edukian ere. Ez Euskadi ez Espainian. Zabarkeria eta utzikeria pairatu zuten, baita euskal gizartearen aldetik ere. Hemendik aurrera sartu ziren agendan biktimak herritarren ekimenek bultzatuta. Honek autokritika merezi du euskal gizartearen aldetik; baina bereziki, banan-banan hartuta gizarte, politika, komunikabide eta erakundee-tako eragile bakoitzarengandik: zer egin genuen eta zer ez biktima horien aurrean? Gehiago eta hobeto egin genezakeen.

Beharrezko autokritika hau da, biktimek pairatu zuten abandonatuetik eta zabarkeriatik eratorria. Beste ezinbesteko autokritika bat dago etorkizunerako: edozein terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa modu erabiltzea babestu, legitimatu edo txikiagotu zutenena, eta bereziki ETARENA, euskal gizarte osoaren ordezkari beretzat hartu nahi izan zuen babes soziopolitikoarekin garatu zelako –hau beti txikia izan zen arren.